


3. eta 4. Kabalkadaren afixa

Zuzenketa




K A B A L K A D A


> Aitzineko kabalkada batzuen afixen konparaketa



> Gabalkada txikiaren afixa sortu - Teknika mistoak



Herriak mapan kokatu (ondoko orrialdean handiz emana da) / Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberoan sailkatu



Non?

- Lekorne
- Arrosa
- Irisarri
- Lekorne
- Itsasu
- Bidarra
- Ortzaize
- Heleta
- Irisarri
- Aiherra
- Luhoso

> Kabalkadak lapurdin eta Baxe Nafarroan ematen dira.
> Herriko plazak agertzen dira afixetan.

Noiz?

- Buruilaren 21an
- Uztailaren 9an
- Uztailaren 13an eta 19an
- Uztailaren 28an eta agorrilaren 3an
- Agorrilaren 19an
- Agorrilaren 28an eta irailaren 3an
- Agorrilaren 25an
- Irailak 18 eta 24
- Uztailaren 30a eta agorrilaren 5a
- Uztailaren 14a eta 14an
- Agorrilaren 26a eta irailaren 2a

> Kabalkadak udan ematen dira.

Nor?

- Lekorneko eta Bidarraiko afixetan jende anitz ageri da.
- Emazteak eta gizonak.
- Afixa anitzetan herria irudikatua da.

> Pentsa dezakegu herritarrek dutela kabalkada muntatzen.

Zer?





IRUDIAK:


- Bolanteak
- Zapurrak
- Makilariak
- Kaskarrotak
- Zaldunak eta zaldizkoak
- Andere zuriak
- Musika tresnak
- Txapel edo burukoak
- Herria irudikatua da
- Gaztelu zahar bat
- Espazio ontzi bat
- Gillotina bat
- Herriak eta herriko plazak

> Pentsa dezakegu herria eta herriko bizia nagusitzen dela kabalkadetan. Haatik, horren aipatzeko manierak oso ezberdinak dira herri batetik bestera: gillotina batek ez du loturarik espazio ontzi batekin!

IDATZIAK:

- "Kabalkada"
- "Tobera"
- "Ehun urtez"
- "Iraul'story"
- "Aiherra Nafarroeren leihoa"





Iturria:

<https://www.gaindegia.eus/es/mapas>



Non?

- Angelun
 - Hardoi plazan
- > Irudi banku bat prestatu: hardoi plaza eta Angeluko argazkiak

Noiz?

- Ekainaren 5an - 18:00etan

Nor?


- Jean Jaures eskola
 - Edouard Herriot eskola
 - Evariste Galois eskola Stella Maris eskola
 - Kimua ikastola
- > Irudi banku bat prestatu: eskolen irudiak, ikasleen argazkiak

Zer?

> "Nahas-mahas" jardueraren irudiak berriz inprimatzen ahal zenituzkete

> Tailerrak hasi ondotik, jarduera eginaraztea aholkatzen dizuegu.

Konkretuagoa izanen da ikasleentzat eta ideia gehiago ukanen dituzte.



1. Afixaren zirriborroa eginarazi ikasleei.
2. Afixak arbelean ipiñi eta proposamen ezberdinak komentatu taldean: iritzika partekatzea, ahantziak izan diren elementuak ohartaraztea, ideia interesgarriak azpimarratzea...
3. Afixa sortu. Teknika mistoak: kolaketa, marraketa, margolaritza...
4. Eskolaren afixa hautatu, bozkatu... (gelan, beste gelako ikasleek, irakasleek?)

> Afixa eskanatu eta erabili komunikatzeko: afixak eskolan, hirian, e-mailez, webgunean...